

2. MAILA

3. ZATIA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (argazkien orria).

- Ikasleei argazkien fitxak eman eta zer egin behar duten irakurri (elkarri begira egongo dira eta irakaslea pixka bat atzerago jarriko da).
- Fitxak aurrean dituztela, minutu erdi bat utzi pixka bat pentsatzeko.

Ikasleek jardun bitartean.

- Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu.
- Behar izanez gero, beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

92. ARGAZKIA:

Zer konpondu lehenago? (Hiru aukeratu)

Herrian beti izaten da konpondu beharreko arazoren bat, baina askotan dirua falta! Fitxan herrian konpondu beharreko hainbat arazoren irudiak agertzen dira. Zein da zuen ustez herritarrak gehien kezkatzen dituen? Zergatik? Zeinek du garrantzi gutxien? **Bion artean hitz egin, adostasunak eta desadostasunak adierazi eta saiatu adosten zein liratekeen lehenbizi konpondu beharreko hiru arazoak.**

GALDERA OSAGARRIAK

- Horien artean, zein izaten dira arazorik ohikoenak gure herrietan?
- Nola jokatzeko dugu, zuen ustez, guztientzat diren azpiegiturekin eta kaleko altzariekin?
- Udalak konpondu beharreko bestelako arazorik izaten da? Zein?
- Zuen herrian zer dago konpontzeko momentu honetan edo zeren beharra dago?



Ezinduentzako azpiegitura



Bidegurutze arriskutsua



Espaloiak egoera txarrean



Bidegorria amaitu gabe

Zer konpondu lehenengo? (Hiru aukeratu)



Argi gutxi kaleetan



Jolas-parke zaharra



Bankuak egoera txarrean



Ur zikinak ibaira